

## HIZKIRIMIRIAK

Gernikako bi abade kafetxo bat hartzera sartu ziren kafetegira, telebistatik bideo «porno» bat ematen zirelarik. Ugazabak, bi abadeak ikusikeran, bideoa aldatu egin zuen, beste dezentetxoago bat jarriz. Irribarrez eta aldakuntzarekin konaturatu ez zirelakoan, abadeengana hurbildu zen. Elizmutila izandakoa zenez, amoltsuki galdetu zien:

—Arratsaldeon, jaunak. Zer nahi?

—Kafesne paretxo bat.

—Atsedenaldi bat egiteko era duzue, telebista bitartean ikusiz, eguraldia ona ez baita.

Eta eskatutako kafesneak prestatzera joan zen lasai ugazaba. Abade zaharrenak orduan esan zion besteari:

—Lehen geuk ukatzen genien halakoak ikustea, eta orain heurek ukatzen digute berbera. Beraz, zorra ordainduta zegok!

\* \* \*

Ama batek seme bat bakarrik zeukan, nahiz eta gaztea eta aberatsa izan. Bederatzi urtekoa edo zen mutila, lehen Jaunartzea egiteko sasoikoa. Eliztiar sutsua izan ez arren, haurraren aginkizunekin zehatz arduratzen zen ama eta besteak bezala hurrengo Jaunartze jaiaildian partaide izan beharko zuela semea burutu zitzaion amari, iñork baino etxeko jai eta bazkari hobea antolatzeko asmo harroputzetan. Eta igande batez meza nagusira joatea erabaki zuen abadearekin hitz egiteko.

Beluko meza ostean sakristiara doa gure ama kotor hau eta abadeari galdetzen dio:

—Jauna, haurren lehen Jaunartzea noiz izango da?

Eta abadearen erantzun zorrotza:

—Eta, zure bigarrena noiz?

Semeagatik ala Jaunartzeagatik esan ote zion? Hau izan zen amaren kezka.

J. A. A. M.